

MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK EUSKARAZ IPINTZEKO 2019. URTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ZEHATZAK

IN-E 180/04-19

UDAL ARLOA/SAILA/ERAKUNDEA:	EUSKARA SAILA
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitzuburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Euskara dirulaguntza batzordea
DIRULAGUNTZAREN ATALA:	Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 88-2
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA:	DIRU- 1.500€ (01400335404710000 partidan: Merkataritzarako errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza)
BERAU EZARRITA LORTU NAHI DIREN HELBURU ETA ONDORIOAK	- Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea - Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jar daitezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisaia euskaraz egon dadin
EPEA: Hasi: Amaitu: Zuritzeko unea: (aurretiko zuriketa edo gerokoa)	Eskaerak aurkezteko epea: deialdia argitaratzen denetik aurrera, 2019. urtea amaitu arte.
BALORAZIO ZEHATZAK:	IRIZPIDE - Errotulua euskaraz idatzita egotea. - Errotuluaren testua zuzen idatzita egotea. Hala ez balitz, zuzentzeko aukera izango du eskatzaileak eta frogagiria aurkeztuta, dirulaguntza jasotzeko modua izango du. - Hala badagokio, hirigintzako lizentzia eskatuta izatea. - Elementu bat baino gehiago ipini gura badira, bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztea. - Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea.
ESKATZAILEAK: Onuradun motak: Enpresa handia, jarduera	Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa txikietako titularrek eskatu ahal izango dute dirulaguntza. Dirulaguntzaren onuradunek, errotulua ipintzeagatik hirigintzako lizentzia



ekonomikorik ez duen pertsona fisikoa, jarduera ekonomikorik ez duen pertsona juridikoa edo ETE eta jarduera ekonomikoa garatzen duen pertsona fisikoa.

eskatu behar duten kasuetan, hobaria izango dute, tasaren %75ekoa.

DIRUZ LAGUN DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA

Lagunduko diren elementuak:

- 1- Establezimenduetako kanpoko errotulua
- 2- Autoetako errotulazioa
- 3- Toldoetako errotulazioa
- 4- Binilozko errotuluak

Diruz lagunduko ez direnak:

- 1- Finantza erakunde, hipermerkatu eta establezimendu-kate handietako errotuluak.
- 2- Izen propio, toponimo eta abizenak bakarrik adierazten dituzten errotuluak.
- 3- Errotuluaren gastua bakarrik lagunduko da, ez diseinua, ez ipintzearen kostua, ezta diseinuaren bestelako osagaiak ere.

Gehienez eskura daitekeen diru-kopurua 300 €-koa izango da. Zenbateko horretatik beherako eskaririk balego, kostuaren %75 eskura daiteke.

PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Dirulaguntza emateko prozedura: konkurrentzia ez lehiakorra izango da.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste edozein dirulaguntzarekin, edozein izaerakoa izanda ere. Beste dirulaguntza horiek beste administrazio batek, zein entitatek emandako dirulaguntzak izan daitezke, beti ere guztiak batuta diruz lagundu daitekeen kostuaren % 100 baino gehiagokoa ez bada. Gain-finantzaketarik balego, diruz lagundutako kostuaren mugaraino murriztuko litzateke dirulaguntza.

Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira, errotulua ipinita dagoela frogatzeko argazkia aurkeztu eta gehienez, hamabost eguneko epean.

Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera orri guztiak beteta
 - . Dirulaguntzea eskatzeko orria
 - . Aurrekontua. Diruz laguntzeko gastua
 - .Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza (I. eranskina)



	<ul style="list-style-type: none"> . Diru sarreren eta gastuen zerrendea . Jarduera txostena edo memoria . Zuritze kontuaren adierazpena <ul style="list-style-type: none"> - NANaren fotokopia - Beste dirulaguntza eskaerarik egin bada, eskari horren kopia, ez bada udala baimendu hori eskuratzeko. - Errotuluaren zirriborroa, aurreikusitako testuarekin (errotulua jarri aurretik) - Jatorrizko faktura (bananduta alde batetik, errotulazioaren zenbatekoa, eta bestetik, errotulazio hori jartzeko euskarria). Faktura hori ordainduta dagoela adierazi beharko da. -Ipinitako errotuluaren argazkia
PROGRAMA HAU EGITEKO AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK	Programako dirulaguntza zenbateko gehienezkoa: Errotuluaren kostuaren % 75 eskaera bakoitzeko, eta gehienez 300 €. Guztira gehienez, 1.500 €-ko aurrekontua dago deialdi honetarako dirulaguntzetara bideratuta.
DIRUZ LAGUN DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA	Establezimenduetan euskaraz jarriko diren errotuluaren %75eko kostua gehienez, 300€-ko mugarekin. Errotulazioa diruz lagunduko da eta ez errotulazioa jartzeko euskarria. Biniloen kasuan, biniloa bere osotasunean diruz lagunduko da.
JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerrian zabaldu diren jardueretatik, errotuluak euskaraz jartzearen emandako dirulaguntza kopurua. - Egindako eskaeretatik emandako dirulaguntza kopurua. - 2019. urtean zehar diruz lagundutako errotulu kopurua - Dirulaguntzaren ordainketa data interesdunei
HONEKIN LOTUTAKO AGIRIAK:	
Genero-eragina: Kontrakoa, bat ere ez edo aldekoa	Batere ez
1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida BAI/EZ	<i>Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria buruzkoa.</i> EZ

